

Buletineko gaiak:

1. *Ikastola Eguna: ginkana eta egitaraua*
 2. *Xanistebanetako txosnako txandak*
- *Apartekoak*

Berri orokorrak

1. Haurtzaro Ikastolaren Eguna: ginkana eta egitaraua

Ginkanarako guraso taldea osatu dugu. Eskerrik asko erakutsitako prestutasunagatik!!

- **Ginkanan lanean parte hartuko duzuen gurasoentzat oharrak:**
 - Txaleko reflektante bat ekarri behar duzue.
 - Errekan lagunduko duzuen gurasoak (aldez aurretik arduradunak harremanetan jarriko dira) 07:00etan ikastolako anfiteatroan elkartuko zarete.
 - Besteak 07:30ean ikastolako anfiteatroan elkartuko dira.
- **Ginkanan parte hartuko duzuen ikasleentzat oharrak:**
 - Ekarri beharrekoak: bizikleta, kaskoa, uretan ibiltzeko arropa (neoprenoa baldin baduzue ekarri), sandaliak edo uretan ibiltzeko oinetakoak (oinetako zahar batzuk izan daitezke).
 - Eguzkia bada eguzkitako krema emanda etorri behar duzue.
 - Ginkana 08:00etan hasiko den arren, taldeak minuturo aterako dira. Ikasleei geletan adieraziko diegu zein ordutan atera behar duten eta 5 minutu lehenago prest egon behar dute irteera lekuan. Ordua errespetatzea eskatzen dizuegu.

Egitaraua Haurtzaro Ikastolaren webgunean duzue eta atxikita erantsita ere bai.

2. Xanistebanetako txosnan lan egiteko izen-ematea

Guztira 150 lagun behar ditugu txandak osatzeko, txanda bakoitzeko 28 lagun inguru; urtero lan egiten duzuen gain orain arte tabernan lana egin ez duzuenen partehartzea ere beharrezkoa dugu.

EGIN BEHARREKO LANAK

1) **Abuztuaren 2tik 6ra:**

- 1. txanda (16:00-19:00)



- Sukaldeko lanak: janaria prestatzen hasi
- Tabernako kamarak edariz bete
- Mahaiak eta aulkiak prestatu
- 2. txanda (19:00-bukatu arte)
- **Oharra:** Txanda motzetan, HH-n haurrak dituzten gurasoak lehenesten ditugu.

2) **Madalenetan, Orereta Ikastolako tabernako txanda: uztailaren 21ean.** Xanistebanetan lan egitea gaizki badatorrizue, txanda honetan izena ematera animatzen zaituztegu. Madalenetan Haurtzaro Ikastolak lan egiten du hango txanda batean eta Oreretako beste batzuk abuztuaren 2an gure tabernan aritzen dira lanean, koadrilen afari egunak direlako bi egunak.

Jarraian duzue izena emateko inprimakia: <https://forms.gle/ak5tZaHaVDkZDVSV7>

Apartekoak

1. Kanterri ikastaroa

Musikazale, musikari, literaturzale, idazle, letragile, kulturzale, euskaltzale, irakasle, hezitzaile, historialari, kazetari, soziologo: Oiartzungo Kantagiltzak, Oiartzungo Udalak eta Ahotseneak KANTERRI egitasmoaren lehenengo ikastaroa antolatu dute, **euskarazko kantagintza bere ertz guztietatik aztertu eta balioan jartzeko.**

Eman izena eta zabaldu: www.labur.eus/kanterri (atxikita duzue informazio gehiago).

2. DBHko gazteentzat ekintzak bihar, larunbata 28

Bihar, maiatzaren 28a larunbata, DBHko gazteentzako (12-16 urte) bi ekintza antolatu ditu Udaletxeko Adin txikikoen Mahaiak, **17:00etatik 20:00etara:**

- **Mural pintaketa** Alaiart-en eskutik, Kiroldegiko parkinean.
- **Arku jaurtiketa** Kuydo Kaburaya elkartearen eskutik, Elizaldeko frontoian.



Maiatzak 28 larunbata

Mural pintaketa (Alaiart)
Kiroldegiko parkinean
17:00-20:00

Arku jaurtiketa (Kuydo Kaburaya)
Elizaldeko frontoian
17:00-19:00

12-16 urte bitarte badituzu, animatu!!
Antolatzailea: Adin txikikoen mahai

Gazteak parte hartzera animatzen ditugu!

